



2021TIK 2024RA BITARTERA (BI URTEAK BARNE) SANTA ISABEL ETA SALBATZAILEAREN HILERRIETAN LORE-SALTOKIAK JARTZEKO BAIMENAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. BAIMEN KOPURUA

Deialdi honen helburua da Gasteizko udalerrian jartzen diren aldi baterako lore-saltokiak esleitzea 2021tik 2024ra bitarteko eperako (bi urteak barne). Hauek dira zehazki:

- a) Salbatzailearen hilerriko urte osoko lore azoka: 3 lizentzia.
- b) Santu Guztien eguna dela eta jartzen den lore azoka:
 - I. Santa Isabel hilerria: 10 lizentzia.
 - II. Salbatzailearen hilerria: 21 lizentzia.

2. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Deialdi honetan ezarritakoari jarraituz loreak saltzen jarduteko baimena lortu nahi duten interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Nahitaezko agiriak:

- Eskabide-orri ofiziala, erantsitako ereduaren arabera.
- Pertsona fisikoaren kasuan: titularraren zein titularkidearen nortasun agiriaren fotokopia edo, Europako Batasunaz kanpokoen kasuan, indarreko legedipean baliodun den atzerritarren identifikazio txartela edo agiri parekidearen fotokopia.
- Pertsona juridikoaren kasuan, eratze eskrituren fotokopia; eskatzailearen ordezkatzeko ahalmena jasotzen duen agiria eta Identifikazio Fiskalerako txartelaren fotokopia.
- Eskatzaileak ordezkari bidez jardunez gero, ordezkariaren NANaren edo horren baliokidea den agiriren baten kopia, bai eta ordezkatzeko ahalmena egiaztatzen duen agiria ere.
- Erantzukizun zibileko polizaren ordainagiriaren fotokopia.

Santu Guztien eguna dela eta jartzen den lore azokarako baimenen kasuan, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztagiria eta polizaren ordainketa-egiaztagiria jarduera hasi baino aste bat lehenago aurkeztu ahalko dira.

Halaber, saltzeko lizentzia emango bazaio, deialdia egin duen tokiko administrazioari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu eskabidea egiten duen pertsonak.



3. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskabideak azaroaren 3tik 13ra aurkeztu behar dira, aurkezteko moduak honako hauek izango dira:

- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa
- Herritarrei laguntzeko bulegoak.
- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 01008.
- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100

Eskaera postaz Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen denean posta ziurtatuz egin behar da. Bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta egun horretan bertan jakinarazi beharko dio eskabidea egin duela Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz (comercio@vitoria-gasteiz.org), azaroaren 13ra arte (egun hori barne). Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta era frogagarrian identifikatu beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, baliteke eskabidea ezestea.

Lizentzien indarraldian, eskaera berriak onartu ahal izango dira, eta erreserba-zerrenda batera bideratuko dira. Lizentzia libreak zozketa bidez emango dira erreserba-zerrenda osatzen duten eskabideen artean.

4. BAIMENAK ESLEITZEA:

Gehienez honakoak esleituko dira:

- 3 baimen Salbatzailearen hilerrirako urte osorako
- 10 baimen Santu Guztien eguna dela eta Santa Isabel hilerrirako
- 21 baimen Santu Guztien eguna dela eta Salbatzailearen hilerrirako

Eskabidea aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea dakar.

Oro har, ez da onartuko salmenta-eskaerarik deialdi honetan ezarritako data ofizialen aurretik edo ondoren.



Eskatzaileek gehienez ere 3 toki hautatu ahal izango dute, erantsitako plano hartuta, eta eskaera-orrian markatuko dituzte saltoki-zenbakiak nahi dutenaren arabera.

Saltoki bera eskatzaile batek baino gehiagok nahi izanez gero, zozketa bidez esleituko da. Eskatutako postuak esleituta egonez gero, eskatutako saltokitik hurbilen eta eskuragarri daudenak esleitzeari ekingo litzaioke. Era berean, El Salvadorko hilerriaren kasuan, urteko salmentarako eskaerek lehentasuna izango dute postua aukeratzeko orduan.

Kokalekurako preferentziarik adierazi ez diren eskabideetan, saltokien esleipena egingo da zenbakien hurrenkera naturalari jarraituta. Dena dela, Udalak bere gain izango du saltokiak birkokatze eskubidea, eskaeraren eta saltokiak antolatze beharren arabera.

Jasotzen den eskabide kopurua esleitzeko dagoen baimen kopurua baino altuagoa bada zozketa bidez esleituko dira. Esleipendun suertatzen ez diren eskabideekin erreserba zerrenda osatuko da, zozketarekin bat datorren hurrenkeraren arabera

Esleipendunen eta erreserban geratutakoen zerrendak 010 telefonoan eta udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org) egongo dira eskuragarri, **azaroaren 4tik aurrera**.

Betegabeko postuak egonez gero, honako irizpideak izango dira kontuan:

1. Erreserba zerrenda
2. Sistema irekia deialdiaren indarraldian zehar, eskabideak deialdian zehar jaso ahal izango dira. Postu hutsak egonez gero, zuzenean emango dira. Postu liberrik ez baldago, zerrendatuko dira zozketa bidez emango den postu libre bat egon arte.

5. BAIMENAREN IRAUNALDIA:

a) Salbatzailearen hilerriko urte osoko lore azoka: lizentzia ematen denetik 2020ko abenduaren 31ra arte.

b) Santu guztien eguna dela eta jartzen den lore azoka:

2021	– urriaren 25etik azaroaren 2ra bitartean
2022	– urriaren 25etik azaroaren 2ra bitartean
2023	– urriaren 29tik azaroaren 5era bitartean
2024	– urriaren 27tik azaroaren 3ra bitartean

6. SALMENTA IBILTARIAREN ARIKETARAKO BALDINTZAK



- Baimenen esleipendunek eta ez beste inork jardun ahalko dute saltzen.
- Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Ofizioz egiaztatuko du Gasteizko Udalak hori horrela den.
- Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea. Baldintza hau galdagarria izango da bereren kontu pertsonal langilearentzat.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea. Ofizioz egiaztatuko da.
- Hirugarren herrietako mailegatzailleek akreditatu behar izango dute bizileku-baimenak eta lana kontuetan indarreko legerian ezarritako beharrak betetzea.
- Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea eta ordainduta egotea.
- Higiene eta osasun edo beste izaera bateko arautze espezifikoek ezarritako baldintzak betetzea.
- Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatua dago haiek eskualdatzea.
- Gainerako betekizunei dagokienez Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Ordenantzan ezarritakoari jarraituko zaio.

7. SALTOAKIAK JARTZEKO BALDINTZAK:

- Salbatzailearen hilerrian urte osoko lore azokarako ematen diren baimenek eskatzen diren urteko egun guztietarako izango dute balioa, onartzen diren datatik aurrera, baita Santu Guztien eguna dela eta, oinarri hauetan adierazitako datetan ere.
- Santu Guztien eguna dela eta jartzen den lore azokarako ematen diren baimenek, oinarri hauetan azaltzen diren datetan balioko dute.
- Santa Isabel hilerrian, sarreraren ondoan jarriko dira lore-saltokiak, harresiaren ondoko espaloi zatian, trafikoari nahiz oinezkoen joan-etorriei enbarazurik ez egiteko moduan eta hilerrirako sarrera bera oztopatu gabe, erantsitako planoan ageri den bezala.
- Salbatzailearen hilerrian, berriz, sarbideko zuhaitz ilararen ondoan jarriko dira, espaloitik nahiz aparkalekutik kanpo, sarrerako atea libre uzten delarik.
- Saltoki bakoitzak gehienez 4 metroko luzera izan ahalko du.
- Baimenen esleipendunak arduratu beharko du erabilitako gunea garbitzeaz eta jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak biltzeaz; lekua garbi eta erabiltzeko



moduan utzi beharko da, bai egun bakoitzaren amaieran, baita denbora-tarte guztiaren amaieran ere

- Esleipenaren titularrek edo titularkideek bere gain hartzen dituzte betebeharrak hauek: salmentan eurak aritzea, saltokia hilerrien jendearentzako ordutegian irekita edukitzea, eta jardueraren gaineko erantzukizun zibileko asegurua izatea.
- Udalak edo ordezkatzeko duen erakundeak edozein unetan egiaztatu ahal izango du oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen direla, ikuskaritza bidez
- Baimenaren titularra izango da jardueraren ondorioz sor litezkeen kalte-galera guztiaren arduraduna.
- Ezingo da deus zoruari lotuta atxiki, eta behar bezala babestu beharko da hura.
- Udaltzainen aginduak bete beharko dira une oro.
- Debekatuta dago saltokia erdibanatzea, lagatzea edo alokatzea.
- Baimenaren titularrek datu hauek jarri beharko dituzte ikusgai, jendeak zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan:
 - Udalaren baimena.
 - Dagokion urteko ordainketa ziurtagiria..
 - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.

8 ESLEIPENA EGOKITZEN ZAION ENPRESAK ORDAINDU BEHARREKO TASA

Saltokiak jartzen direlarik, urtero bide publikoa okupatzeagatik prezioa –udal ordenantza fiskaletan finkatzen dena– ordaindu beharra izango da.

9. LIZENTZIAK ESKURATZEA:

Abenduaren 14tik aurrera emango zaizkie esleipendunei, Udaletxeko bulego teknikoetan - Teodoro Dublang, 25, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara - behin dagokien tasa ordaindu ondoren.

Titularrak edo titularkideak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkeztuta –Europar Batasunaz kanpokoan kasuan, atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia–.

Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar Batasunaz kanpokoan kasuan) den fotokopia erakutsita.